

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

NAVARIDASKO UDALA

Arabako Errioxako Ur Partzuergoari atxikitako udalerrietako eta erakunde publikoetako uren hornidura eta saneamenduko zerbitzu publikoaren jarduerarako kapital publiko osoa izango duen merkataritza-sozietate bat eratzeko alderdi sozial, juridiko, tekniko eta ekonomiko-finantzarioen memoria jendaurrean jartzea

Udal honen osoko bilkurak, 2020ko azaroaren 6an egindako bilkuran, Arabako Errioxako Ur Partzuergoari atxikitako udalerrietako eta erakunde publikoetako uren hornidura eta saneamenduko zerbitzu publikoaren jarduerarako kapital publiko osoa duen merkataritza-sozietate bat eratzeko alderdi sozial, juridiko, tekniko eta ekonomiko-finantzarioen memoria jendaurrean jartzea erabaki zuen.

Memoria hori jendaurrean jarriko da udal honetako udal-idazkaritzan, 30 egun naturaleko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, epe horretan egoki irizitako oharrak aurkeztu ahal izateko.

Navaridas, 2020ko azaroaren 6a

Presidentea

MIGUEL ÁNGEL FERNÁNDEZ GONZÁLEZ